

2000, 2  
45. Liburukia  
BILBO



# **HIZTEGI BATUA**



Ondoren agertzen diren euskaltzainek, hilero-hilero aztertu eta erabaki diren Hiztegi Batuaren hitz-zerrendak onartzen dituztela egiaztatzeko sinatzen dute agiri hau, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2000.eko martxoaren 31n.

J. Haritschelhar, euskaltzainburua

P. Altuna

J.A. Arana Martija

M. Azkarate

P. Charritton

J.L. Davant

X. Diharce

A. Iñigo

X. Kintana

H. Knörr

E. Larre

J.M. Lekuona

B. Oñartzabal

F. Ondarra

Tx. Peillen

P. Salaburu

J. San Martin

I. Sarasola

J.M. Satrustegi

A. Urrutia

P. Goenaga, idazkaria



## ARGIBIDEAK

Esku artean duzun Hiztegi honek, Euskaltzaindiak, sortu zenetik orain arte, hiztegi alorrean hartu dituen erabaki eta gomendio guztiak hartzen ditu bere mendean; hots, aurreko erabaki edo gomendioaren bat ados ez badator Hiztegi honetan esaten denarekin, honi jarraitu behar zaio eta ez hari. Hortaz, Hiztegi Batu hau da, Euskaltzaindiarentzat, euskal hitzen, aldaeren eta horien guztien erabileren zuzentasuna edo egokitasuna erabakitzeko irizpidea. Hurrengo lerroetan, Hiztegi Batu honen edukiaren zenbait alde argitzen saiatuko gara.

Euskaltzaindia konturatzen da irakurleak ez duela, agian, Hiztegi Batuaren lehen idatzaldi honetan argibiderik aurkituko eguneroko lanean behar dituen hainbat hitzez, eta era berean, alferrikakoak irudituko zaizkiola beste zenbait hitzi buruzkoak, inoiz erabiliko ez dituelakoan. Metodo kontu bategatik jokatu dugu horrela. Hiztegi Batua ontzen hasteko orduan, Euskaltzaindiak, lehenbizi, orain artean bere izenaren pean argitaratu dituen hitz zerrenda eta hiztegiak aztertu behar zituen, eta horietako hitzek Hiztegi Batuan izan behar zuten forma eta edukia erabaki. Nolanahi ere, hitz horiekin batera, orobat bildu ditugu Hiztegi Batuaren lehen idatzaldi honetara gure literatura tradizioan ongi finkaturiko hitzak, eta baita azken hogeita hamar urteotako testuetan agertzen direnak ere, osaera zuzenekoak izanik premia bati erantzuteko egokitzak jo direnean.

Forma bat edo beste aukeratzeko orduan, irizpide nagusiak bi hauek izan dira:

a) tradizio idatziko eta egungo erabilera; gaur egun, orain arte ez bezala, Hiztegi Batuari berme sendoarekin ekiteko moduan ezagutzen ditugu erabilera horiek *Orotariko Euskal Hiztegia*-ri eta *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*-ri eskerrak.

b) alde bateko eta besteko euskaldunak batzen gaituzten formak hobestea; maileru berrietan, esaterako, nazioarteko formen alde egin dugu, eta horrelakorik ez da goen kasuetan, Iparraldeko eta Hegoaldekoentzat onargarri gertatzen direnei eman zaie lehentasuna. Forma bakarrera iristeko oinarririk edo indarrik ikusi ez denean, forma lehiakideak eskaini dira, kasuan kasuko argibideak emanez, beherago adieraziko den eran.

Hiztegian jasotzen ez diren hitzei buruz esan behar da, bestalde, Euskaltzaindiak ez dituela oraingoz onartzen, baina ezta gaitzesten ere. Nahiago izan dugu alderdiren

batetik eragozpenen bat agertzen duten hitzak bigarren ekinaldiko azterketa zehatzaigoaren ondoren onartzeko utzi, euskaldunen egungo premia larriek hertsaturik arinkeriak jokatu baino. Erraza da forma bat proposatzea; ez hain erraza, askotan, alde guztietan begiraturik etorkizunerako egokiena gerta daitekeena eskaintzea. Euskaltzaindiak bigarren era honetan aritu behar du ezinbestean.

Jakina denez, euskal hitz askok hainbat aldaera agertzen dituzte tradizioko testuetan. Horrelakoetan, jakina, aldaera bat onartu du Euskaltzaindiak, eta besteak baztertu, oro har. Aldaera baztertuekin bitara jokatu dugu: batetik, gaur egun zalantzaren bat sortzen dutenak berariaz baztertu ditugu, aldaera baztertuari izartxo bat erantsiz eta *e.* [= erabili] ikurraren ondoan forma hobetsia adieraziz: “erropa\* e. **arropa**”, adibidez; bestetik, batasunak hogeita hamar urteko bidea ibili ondoren gehiengo zabalak dialektaltzat jotzen dituen aldaerak —*barri* edo *izandu* bezalakoak, esaterako— ez ditugu aintzat hartu hiztegian. Beste batzuetan, hitza bera baztertu da, haren ordeko bat erabili behar dela adieraziz. Dena dela, esan behar da *e.* ikurra daramaten hitzok adierarik arruntentan soilik gaitzesten direla: esaterako, “kartera\* e. **diru(-)zorro, paper(-)zorro**” sarerak adierazten du adiera horretan, eta ez bestetan, gaitzesten dela *kartera*-ren erabilera; *kartera* hitzak izan ditzakeen beste adierez ez da lehen idatzaldi honetan ezer esaten.

Hainbat hitzen formaren ondoan *Bizk.*, *Ipar.* eta *Naf.*, *Gip.*... ikurrak ematen ditugu. Euskalki markaren bat azaltzen duten hitz horiei buruz esan behar da ez dela inondik ere Euskaltzaindiaren asmoa, marka horiek eranstean, horrelako hitzak baztertzea; aitzitik, euskalki hitzok Hiztegi Batuan sartzeak adierazten du Euskaltzaindiak bultzatu egin nahi dituela idazleak hitz horiek erabiltzera —jakinarean gainean eta nori bere senak agintzen dion eran, jakina— horrela euskaldun guztien ondare komuna bihurtuz joan daitezten.

*Heg.* ikurraren esanahia bestelakoa da, eta bitarikoa. Batzuetan, *Heg.* ikurraren bidez adierazi nahi dugu, delako hitza berria dela eta gaztelaniaz ez dakitenentzat ezin ulertuzkoa —*aleazio*, esaterako—; horrelako hitz askok bikotea osatzen dute *Ipar.* marka daramaten hitzekin —*Heg.* ikurra duen *alfonbra*-k *Ipar.* duen *tapiz*-ekin adibidez—. Kasu haueetan Euskaltzaindia ez da gauza izan euskaldun guztiok batu gaitzakeen forma bakar bat eskaintzeko, eta, oraingoz, horrelako bikoteekin etsi behar izan du. Beste kasu batzuetan, *Heg.* ikurrak —*aspertu*-ren lehen adieran, esaterako— adierazten du delako erabilera Hegoaldekoa soilik dela, eta horrelakoetan, noski, ez zaio horiek erabiltzeari inolako oztoporik jarri nahi. Ez dugu uste inongo irakurlek arazorik izango duenik batzuk eta besteak bereizten.

Beste hitz mota batek ere argibide berezia behar du: “h.” [= hobe] ikurra erantsi zaienak, hain zuzen. Horieta ere bi multzo bereizten ditugu. Lehen multzoa euskalki marka daramaten hitzek osatzen dute. Horrelakoetan, “hobe” hori Euskal Herri osoari begira idazten diren testuetako erabilerrari soilik dagokio, eta hitz edo aldaera horiek egokiak dirateke beste kasu batzuetan, *Herria* astekarian, *Bizkaia* gehigarrian edo herri aldizkarietan idazterakoan, adibidez. Bigarren multzoa bestelakoei —hots, “**zigarro** [...] 2 *Heg.* ‘zigarro txikia’ h. **zigarreta**” edo “**partidu** *Heg.* 1 h. **partida** [...]” bezalakoei— dagokie. Hauei buruz Euskaltzaindiak esan nahi du ohartzen dela ez direla denak idazle guztiek egoera guztietan eta berehala onartzekoak, eta agian bide zuhurrena pausokoa dela, testu jaso eta formalenetatik hasiz, eta bigarren urrats baterako utziz ahozko erabilerei lotuenak. Hemen ere, senak eta egoerak erakutsiko dio idazle edo esatari bakoitzari nola joka arauok betetzeko erantzukizunean.



Euskal hiztegitantz aspaldi honetan ohi denez, izenak eta izenondoak artikulua gabe ematen ditugu. Aditzei dagokienez, era burutuaz gain aditzoinaren eta era burutugabearen formak ere adierazi ditugu. Zenbaitetan aditzoinarentzat ageri diren aukera bikotzak —*ahuldu*, *ahul(du)*, *ahultzen* edo *belztu*, *beltz/belztu*, *belzten* bezalakoak— Euskaltzaindiak dagokion arauan agintzen duenaren ondorio dira: alegia, parentesi artekoko *du* horrekin adierazi nahi da izen, izenondo nahiz aditzondoetatik eratorritako aditzetan, *ez dadin ahuldu* eta *ez dadin ahul*, esaterako, onartu direla.

Sarrera nagusien ondoan, tradizioan lekukotasun sendoa duten elkarketazko eratorriak eta esapideak jaso dira azpisarrera gisa. Hauetan ere, eratorri edo esapide jakin bat ez agertzeak ez du esan nahi hura baztertzen denik —berariaz arbuizaten ez bada, bederen—, baina ezta zernahi eratorri edo esapide onartzen denik ere.

Argi dago Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua, lehen idatzaldi honetan, ortografia hiztegia dela batez ere, hau da, hitzen *forma* egokiaz ari dena. Ez da hori harriztekoa, arautze bidean gertatzen diren hizkuntza guztiak urrats hori egiten baitute lehenik. Dena dela, aski da Hiztegiari gaingiroki begiratzea besterik ere eskaintzen duela ikusteko. Argibide osagarri horien zer-nolakoak azalduko ditugu hurrengo lerroetan.

Gramatika kategoria aditz guztietan adierazi da, egungo euskal hiztegietan erabili ohi diren klase eta laburduren bidez; gainerako hitzetan, joskera arazoetan argigarria eta zehazgarria gerta zitekeenean soilik adierazi da.

Hainbat sarreretan hitzaren maila adierazi da, behe mailakoak —lagunartekoak eta herrikoiak— eta goi mailakoak edo jasoak —literarioak etab.— bereiziz; ildo beretik, forma adierazkorrek ere hiztegitatu dira. Erabileraren aldetik, hitz zaharkituak —*zah.*—, gutxi erabili direnak —*g. er.*— eta gaur egun gutxi erabiltzen direnak —*g. er.*— ere markatu dira. Orobat, teknika eta zientzia hitzei dagokienez, bakoitzaren alorra mugatu da, *Mat.*, *Admin.* eta kideko laburduren bidez. Animalia eta landare izen nagusi guztiei zientzia izena erantsi zaie. Ahalik eta informazio osagarri gehiena emateko eginahal horretan, ahalegina egin da sinonimoak eta antonimoak ematen. Sinonimoi buruz esan behar da batzuk sinonimo beteak direla eta beste batzuk ez. Esaterako, euskarazko *bela* guztiak *haize-oihal* dira, eta orobat *haize-oihal* guztiak *bela*; hortaz, “**bela** *Sin. haize(-oihal)*” eta “**haize(-oihal)** *Sin. bela*” eman ditugu; baina, aldez, nahiz *azote* guztiak *zigor* diren, *zigor* guztiak *azote* ez direnez gero, “**azote** *Sin. zigor*” eman dugu, baina ez alderantzizkoa.

Sarrera ez gutxitan, gure ustez beharrezkoen gertatzen zen kasuetan, hitzaren adierak eman ditugu, zenbakien bidez. Adiera bakoitza ezaugarritzeko, definizio xumeez eta hitz adierazgarriez baliatu gara: definizioak komatxo artean eta adierazgarriak parentesi artean eman ditugu. Orobat erabili ditugu komatxoak hainbat hitzen esanahia argitzeko eta bide batez hitz erabiliago bat aipatzeko: esaterako, “**betortz** letagina” ematen dugunean, *betortz* hitza argitu nahi diogu ezagutzen ez duenari, eta bide batez adierazi *betortz* baino erabilera zabalagokoa —eta hortaz, egokiagoa askotan— dela.

Adierak ezaugarritzeko, adibideak erabili ditugu beste kasu batzuetan. Esan behar da adibide horietan —eta gorago aipatu diren definizio eta adierazgarrietan—, marraztekoa, Euskaltzaindiaren arauaren arabera aukerakoa denean, batzuetan ipini dugula eta besteetan ez, aukerako izate hori errespetatzeko eta adibideok marrazteko parentesidun ez betetzeko. Sarreretan, aldez, marraztekoaren erabileraren arauak zilegitzat jotzen

dituen idazkera guztiak eman ditugu. Kontuan izan behar du irakurleak *haize(-)oihal-*ek *haize oihal* eta *haize-oihal* idazkerak biltzen dituela.

Orobat, beharrezko ikusi denean, hitzen erabilera zuzenaz ere egin dira oharrak, zuzenean nahiz zeharka. Esaterako, *akabatu*-ri 'hil' adiera ezarri zaionean, uste dugu irakurle zuhurrak horrenbestez 'amaitu' adieran onartzen ez dela ulertuko duela. Hiztegi honek, arau kontu guztiak bezala, letra eta espiritua du. Esan gabe doa Hiztegi Batu hau ontzean erabili dugun filosofia dela, batez ere, euskaldunek aintzat hartzea nahi genukeena.

## LABURDURA-ZEINUAK

ad.	Aditza	g.g.er.	Gaur gutxi erabilia
adb.	Adberbioa	Gaztel.	Gaztelania
adib.	Adibidez	Geogr.	Geografia
Adkor.	Adierazkorra	Geol.	Geologia
adlag.	Adizlaguna	Geom.	Geometria
Admin.	Administrazioa	Gip.	Gipuzkera
Akus.	Akustika	Goi.	Goi-mailakoa
Anat.	Anatomia	Gram.	Gramatika
Anton.	Antonimoa	h.	Hobe (forma hobetsia ondo- koa da)
Ark.	Arkeologia	Haur.	Haur-hizkera
Arrunk.	Arrunkeria	Heg.	Hegoaldea
Arkit.	Arkitektura	Herr.	Herri-mailakoa
Astron.	Astronomia	Hist.	Historia
Beh.	Behe-mailakoa	Hizkl.	Hizkuntzalaritza
Biokim.	Biokimika	ik.	Ikus
Biol.	Biologia	interj.	Interjekzioa
Bizk.	Bizkaiera	Ipar.	Iparraldea
BNaf.	Behe-nafarrera	Irud.	Irudizkoa
Bot.	Botanika	iz.	Izena
Cl.	Klasea (taxonomian)	izlag.	Izenlaguna
e.	Erabil (erabili beharreko for- ma ondokoa da)	izond.	Izenondoa
edo	(bi grafia onartzen dituzten formen artean ageri da)	izord.	Izenordaina
Ekon.	Ekonomia	Jas.	Jasoa
Elek.	Elektrizitatea	junt.	Juntagailua
Erl.	Erljioa	Kim.	Kimika
Fam.	Familia (taxonomian)	Kirol.	Kirolak
Fil.	Filosofia	L	Lapurdi
Finantz.	Finantzak	Lap.	Lapurtera
Fis.	Fisika	Lgart.	Lagunartekoa
G-B	Gipuzkoa eta Bizkaia	Liter.	Literatura
g.er.	Gutxi erabilia	Log.	Logika
		lok.	Lokailua
		Mat.	Matematika

Med.	Medikuntza	Subfam.	Subfamilia (taxonomian)
Meteorol.	Meteorologia	Subkl.	Subclassis (taxonomian)
mug.	Mugatua	Subord.	Subordo (taxonomian)
Mus.	Musika	Superfam.	Superfamilia (taxonomian)
Naf.	Nafarrera (batez ere, goi-nafarrera; "Lap. eta Naf."ekoak nafarrera osoa adierazten du)	Tekn.	Hitz teknikoa
		Teknol.	Teknologia
onomat.	Onomatopeia	Zah.	Zaharkitua
Opt.	Optika	zenb.	Zenbakia
Ord.	Ordena (taxonomian)	zenbtz.	Zenbatzailea
ord.	Ordinala	Zientz.	Zientzia
partiz.	Partizipioa	Zin.	Zinema
Pei.	Peioratiboa	Zool.	Zoologia
pl.	Plurala	Zub.	Zuberera
postpos.	Postposizioa	Zuz.	Zuzenbidea
pred.	Predikatua	*	Forma okerra edo euskara batuan saihestekoa
Sin.	Sinonimoa	(-)	Marratxoz loturik zein marratxorik gabe, bi hitzetan, idatz daiteke
sing.	Singularra		
sp.	Espezia (taxonomian)		

## A

**a 1** “a” letraren izena

**a 2** interj. *a!*

**ababor** iz.

**abade** 1 ‘monasterioko burua’. 2 *Bizk.* ‘apaiza’

**abadesa**

**abadetu**, abade(tu), abadetzen. *da/du* ad.

**abadia**

**abagune**

**abaildu**, abail, abailtzen. *da/du* ad.

**abakando** *Homarus gammarus*

**abako**

**abandonatu**, abandona, abandonatzen. *du* ad. h. **utzi**; **alde batera utzi**, **bertan behera utzi**

**abangoardia**

**abantaila**

**abantaila eraman** *Zah.* ‘aldea atera’

**abao** *Sin.* **abaraska**

**abar** ‘adar txikia’

**eta abar** (*eta abar luze bat* joskera de-segokia da)

**abaraska** *Sin.* **abao**

**abaritz** *Quercus coccifera*

**abarka**

**abarkadun** ‘baserritarra’

**abarketa** ‘espartina’

**abaro**

**abaro egin**

**abaroan egon**

**abarrakitu**, abarraki, abarrakitzen. *da/du* ad. ‘suntsitu’

abarrots\* e. **harrabots**

**abatx**

**abdikatu**, abdika, abdikatzen. *du* ad.

**abdomen**

**abegi**

abel xehe\* e. **abere xehe**

**abelazkuntza**

**abelera** *Gip.* ‘egoera’

**abeletxe**

**abelgorri**

**abeltegi**

**abeltzain**

**abeltzaintza**

**abemaria**: *hiru abemaria errezatu zitu-  
tuen; abemarietan geratu dadila dan-  
bolina. Sin. agurmaria*

**abemarietako**: *dorreko kanpaiak abe-  
marietakoak jo zuenean.*

**abendu**

**abeniko**

**abenka**

**abentura**

**aberasbide**

**aberasgarri**

**aberastasun**

**aberastu**, aberats/aberastu, aberasten. *da/du* ad.

**aberats**

**abere**

**abere xehe**

**abere-hiltzaile** iz.

**aberia** 1 h. **matxura**. 2 ‘kalte handia’

**aberri**

**aberrigabe** izond.

**aberriratu**, aberrira, aberrirutzen. *da/du* ad.

**abertzale**  
**abertzaletasun**  
**abesbatza**  
**abeslari**  
**abestalde**  
**abesti**  
**abestu**, abes, abesten. *du* ad.  
**abiaburu**  
**abiada**  
 abiadore\* e. **pilotu, hegazkinlari**  
**abiadura** 1 *Ipar.* eta *Naf.* ‘hastapena’. 2  
*Heg.* ‘lastertasuna’  
**abiagune**  
**abian**: *lan hau abian jarri zen eguna; jo-  
 ateko abian da.*  
**abiapuntu**  
**abiarazi**, abiaraz, abiarazten. *du* ad.  
**abiatu**, abia, abiatzen. *da/du* ad.  
**abiatze**  
**abiazio**  
**abidjandar** (herritarra)  
**abil**  
**abilezia**  
**abilki**  
**abio**  
**abioi** h. **hegazkin, aireko**  
**abisatu**, abisa, abisatzen. *du (Ipar.)* edo  
*dio (Heg.)* ad.  
**abisu**  
**abitu**  
**abizari**  
**abizen** ‘pertsonek deitura’  
**ablatibo**  
**abokatu**  
**abonamendu**  
**abortatu**, aborta, abortatzen. *du* ad.  
**abortatze**  
**abortu**  
**abortza**  
 abots\* e. **ahots**  
**absente**  
**absentzia**  
**abside**  
**absolbitu**, absolbi, absolbitzen. *du* ad.  
**absolutismo**  
**absolutista**  
**absolutu**  
**absoluzio**  
**abstraktu**

**abstrakzio**  
**absurdo**  
**abudhabiar** (herritarra)  
**abujar** (herritarra)  
**aburu**  
**aburumenka** ‘iritzira’  
**abusatu 1**, abusa, abusatzen. *du* ad.  
**abusatu 2**, abusa, abusatzen. *Ipar. da* ad.  
 ‘jostatu, dibertitu’  
**abuzabiar** (herritarra)  
**abuztu**  
**abzisa**  
**adabaki**  
**adabatu**, adaba, adabatzen. *du* ad.  
**adabegi**  
**adaburu**  
**adagio** *Mus.*  
**adaje**  
**adaki**  
**adar** 1 ‘animalien hezur luzakina’: *ake-  
 rrak adarrak okerrak ditu.* 2 ‘zuhait-  
 tzen enborretik ateratzen den besoa’:  
*pagoaren adarrak moztu.* 3 ‘musika-  
 -tresna’: *adar-hotsa entzun.* 4 ‘bidea-  
 ren, zientzien, etab.en zatia’  
**adarra jo**: *niri behintzat ez didazu  
 adarrik joko!*  
**adarbakar**  
 adardun  
**adareta** (golde-mota)  
**adargabe** izond.  
**adarka** adlag.  
**adarkada**  
**adarkadura**  
**adarkatu**, adarka(tu), adarkatzen. 1 *du*  
 ad.: *zezenak adarkatu zuenean.* 2 *da*  
 ad.: *bidea adarkatzen den gunean.*  
**adartsu**  
**adasdun**  
**adats**  
**adausi**  
**adaxka**  
**adberbio**  
**addisabegar** (herritarra)  
**adei**  
**adeitasun**  
**adeitsu**  
**adelatu**, adela, adelatzen. *Batez ere Zub.*  
*da/du.* ad. ‘prestatu, apailatu’

**adendar** (herritarra)  
**adi egon**  
**adia**  
**adiaka** adlag.  
**adiakatu**, *adiaka(tu)*, *adiakatzen*. *da* ad.  
**adibide**  
**adibidez**  
**adiera**  
**adierazgarri** 1 iz.: *besoan zeraman taldearen adierazgarria*. 2 izond.: *adibide adierazgarriak aipatu ditu*.  
**adierazi**, *adieraz*, *adierazten*. *du* ad.  
**adierazkor**: *hitz adierazkorren ortografia*.  
**adierazle**  
**adierazpen**  
**adierazpide**  
**adierraz**  
**adigai**  
**adigaitz**  
**adikatu**, *adika*, *adikatzen*. *da* ad. ‘nekatu’  
**adimen**  
**adimendu** h. **adimen**  
**adin** 1 ‘edadea’. 2 *Bizk. Zah.* ‘adimena’  
**adina**  
**adinako**  
**adinbat** ‘adina, beste’  
**adindun**. *Anton.* **adingabe**  
**adineko**  
**adingabe** izond. *Anton.* **adindun**  
**adingabeko**  
**adinon**  
**adintsu**  
**adio**  
**adiskidantza**  
**adiskide**  
**adiskidetasun**  
**adiskidetu**, *adiskide(tu)*, *adiskidetzen*. *da/du* ad.  
**aditu** **1**, *adi*, *aditzen*. *du* ad. 1 ‘entzun’. 2 ‘ulertu’. 3 ‘usaimenaz sumatu’  
**elkar aditu**  
**ez aditu(arena) egin**  
**aditu** **2** izond. eta iz.: *lege kontuetan adituek diotenez*.  
**aditz**  
**aditzaile**: *aditzaile onari*, *hitz gutxi*.

**aditze**  
**(zerbaiten) aditzea izan**: *badut horren aditzea*.  
**aditzera eman** (*jakitera eman* baino ego-kiagoa *da*)  
**aditzoin**  
**aditzondo**  
**adizkera**  
**adizki**  
**adizlagun**  
**adjektibo**  
**adjudikatu**, *adjudika*, *adjudikatzen*. *du* ad.  
**administrari** ‘administrazioko langilea’: *administrariak*, *administrari laguntzaileak*.  
**administratu**, *administra*, *administratzen*. *du* ad.  
**administratzaile** ‘administratzen duena’  
**administrazio**  
**adoratu**, *adora*, *adoratzen*. *du* ad.  
**adore**  
**adoretsu**  
**ados**  
**ados egon**  
**ados etorri** *Sin. bat etorri*  
**ados izan**  
**ados jarri**  
**adreilu**  
**adrenalina**  
**adriatiko** izond.: *Itsaso Adriatikoa*.  
**adua**  
**aduanazain**  
**adur** **1** *Sin. lerre*  
**adur** **2** ‘zoria’  
**aerodinamika** *Fis.*  
**aerodromo**  
**aeronautika**  
**aeronautiko**  
**aerostato**  
**afaldu**, *afal*, *afaltzen*. *du (Heg.)* edo *da (Ipar.)* ad.  
**afari**  
**afera**  
**afganiar** (herritarra)  
**afganistandar** (herritarra)  
**afixa** *Sin. kartel*  
**afrikaans** (hizkuntza)  
**afrikaerditar** (herritarra)

**afrikar**  
**afrodisiako**  
**agata** (harribitxia)  
**ageri** izond.: *leku ageria*.  
**agerian**  
**ageri-agerian** (eduki, egon, jarri)  
**agerian** (eduki, egon, jarri)  
**ageri izan**, ageri, ageriko. *da eta du ad.*:  
*garbi ageri da horren bihotz ona; ageri duzu ez zarela hemengoa.*  
**ageriko**: politikarien ageriko bizitza; ageriko aurrezkoa. *Sin.* **jendaurreko**, **publiko**  
**agerkari**  
**agerpen**  
**agerraldi**  
**agerrarazi**, agerraraz, agerrarazten. *du ad.*  
**agertu**, ager, agertzen. *da/du ad.*  
**agertze**  
**agian** 1 'beharbada, apika'. 2 *Ipar.* 'oxala': *agian luzaz biziko dira elkarrekin.*  
**agindu** 1 iz.  
**agindu** 2, agin, agintzen. *du ad.*  
**aginpide**  
**agintarazi**, agintaraz, agintarazten. *dio ad.*  
**agintari**  
**agintaritza**  
**aginte**  
**agintza** h. **agintzari**, **promes**  
**agintzari**  
**agiraka**  
**agiraka egin**  
**agiri** iz. 'dokumentua, izkribua, adierazpena'  
**agiriko\*** e. **ageriko**  
**aglutinatu**, aglutina, aglutinatzen. *du ad.*  
**agonia**  
**agor**  
**agorraldi** *Sin.* **agorte**  
**agorri** h. **abuztu**  
**agorte** *Sin.* **agorraldi**  
**agortu**, agor(tu), agortzen. *da/du ad.*  
**agotz\*** e. **ahotz**  
**agronomia**  
**agrono** 1 *Heg.* adlag. 'laster'. 2 *Ipar.* izond. 'trebea'

**agur** 1 (diosal hitza): *entzuleok, agur!* 2 'agurtzea': *bere agurra helarazi digu errektoreak.*  
**agur egin**  
**agure** (hitz markatua da, gutxiespen barioa du eskuarki, eta ezin erabil daiteke *adineko*-ren sinonimo oso balitz bezala)  
**agurgarri**  
**agurmaria** *Sin.* **abemaria**  
**agurtu**, agur(tu), agurtzen. *du ad.*  
**ahabia** *Vaccinium myrtillus*  
**ahago** *Rumex patientia*  
**ahaide**  
**ahaidego** 'ahaidetasuna'  
**ahaidetasun**  
**ahaire** *Zub.* 'doinua'  
**ahakar** *Sin.* **aharra**  
**ahal**  
**ahalaz** *Lap.* eta *BNaf.* 'ahal den neurrian': *euskara ahalaz garbia darabil; saiatzen dira ahalaz gordetzen lehen-go ohiturak.*  
**ahal adina**  
**ahal adinako**  
**ahal bezain**  
**ahal bezainbat**  
**ahal bezala**  
**ahala**: *iritsi ahala eseri dira; esan ahalak esan dizkiote elkarri.*  
**ahalbait\*** e. **albait**  
**ahalbide**  
**ahaldun**  
**ahaldundi\*** e. **aldundi**, **diputazio**  
**ahalegin** *Sin.* **eginahal**  
**ahalegindu**, ahalegin(du), ahalegintzen. *da ad.*: *esaten (bukatzen, etab.) ahalegindu.*  
**ahalge\*** e. **ahalke**  
**ahalguztidun**  
**ahalik** 1 adlag.ekin: *ahalik maizen, sarriren*, etab. baino hobeto *ahalik maizena*, *ahalik sarriena*, etab. 2 izond.ekin: *ahalik garbiena, osoena, ederrena*, etab.  
**ahal izan**, ahal izaten, ahalko / ahal izango: *ekarri ahal izateko; etortzen ahal da; ahal dela; ahal den sailik handiena; ezin konta ahal.*  
**ahal izate**



**ahalke**  
**ahalkeizun**  
**ahalmen**  
**ahaltsu**  
**ahamen**  
**ahantzarazi**, ahantzaraz, ahantzarazten.  
*dio* ad.  
**ahantzi**, ahantz, ahanzten. *da/du* ad.  
**ahanzkor**  
**ahanzte**  
**ahapaldi**  
**ahardi**  
**ahari**  
**aharra** *Sin.* **ahakar**  
**aharrausi**  
**ahate**  
**ahats** *Zah.* ‘zikina’  
**ahazkor**  
**ahazte**  
**ahaztu**, ahatz, ahazten. *da/du* ad. eta *zaio*  
ad.: *euskaraz hitz egiten ahaztu zaio;*  
*bigarren galderari erantzutea ahaztu*  
*zaio.*  
**ahi**  
**ahiarazi**, ahiaiaz, ahiaiazten. *du* ad.  
**ahitu**, ahi(tu), ahitzen. *da/du* ad. ‘agortu,  
bukatu’  
**ahizpa**  
**aho**  
**aho-artatzaile**  
**aho batez**  
**aho betean**  
**ahotan**  
**ahotik ahora**  
**aho zabalik**  
**aho zabalka**  
**ahoz**  
**ahoz aho**  
**ahoz behera**  
**ahoz gora**  
**ahozko**  
**ahogozatu**, ahogoz, ahogozatzen. *du* ad.  
**ahogozo**  
**aholegar**  
**aholkatu**, aholka, aholkatzen. *du* ad.:  
*norbaitek norbait zerbait egitera ahol-*  
*katu; aholkatu zuen Adan hark ere har*  
*zezan sagar hartatik.* *Sin.* **aholku**  
**eman**

**aholku**  
**aholku eman**  
**aholkularitza**  
**ahoskarazi**, ahoskaraz, ahoskarazten. *dio*  
ad.  
**ahoskatu**, ahoska, ahoskatzen. *du* ad.  
**ahots**  
**ahotz**  
**ahuku**  
**ahul**  
**ahularazi**, ahularaz, ahularazten. *du* ad.  
**ahuldade** *Gip.*  
**ahuldu**, ahul(du), ahultzen. *da/du* ad.  
**ahuleria** ‘indar falta’  
**ahulezia**  
**ahulkeria** ‘kemen falta’  
**ahultasu**  
**ahuntz**  
ahuña\* e. **antxume**, **ahuñe**  
**ahuñe** *Zub.* ‘antxumea’  
**ahur** 1 iz. ‘eskuaren barrualdea’. 2 izond.  
*Mat.* eta *Fis. Sin.* **konkabo**: *poligono*  
*ahurra.*  
**ahuspez**  
**ahutz**  
**ai** *Sin.* **aiei**  
**aiduru**  
**aiduru egon**  
**aiduru gelditu**  
**aiei** *Sin.* **ai**  
**aienatu**, aiena, aienatzen. *du* ad.  
**aiene**  
**aieru**  
**aihen**  
**aiher**  
**aiher izan**  
**aiherkunde**  
**aihertu**, aiher(tu), aihertzen. 1 *da* ad.  
‘makurtu’. 2 *zaio* ad. ‘kontra egin’  
**aihotz**  
**ailegatu**, ailega, ailegatzen. *Batez ere*  
*Gip. eta Naf. da* ad. *Herr.* ‘iritzi, hel-  
*du’*  
**aimara** (hizkuntza)  
aina\* e. **adina**  
**ainara** h. **enara**  
ainbat\* e. **adinbat**, **hainbat**  
**aingeru**  
**aingira** *Anguilla anguilla*

**aingura**  
 ainitz\* e. **anitz**  
**aintza**  
**aintzakotzat** ‘aintzat’  
**aintzat**  
     **aintzat eduki**  
     **aintzat eman**  
     **aintzat hartu**  
 aintzin\* e. **aitzin**  
**aintzira**  
**ao**  
**aipagarri**  
**aipamen**  
**aiparazi**, aiparaz, aiparazten. *dio* ad.  
**aipatu**, aipa, aipatzen. *du* ad.  
**aipu**  
**airatu**, aira, airatzen. *da/du* ad.  
**aire** 1: *itsasoko arrainak eta aireko txo-riak*. 2 *Ipar*. ‘doinua’. 3 ‘antza, itxura’  
     **aire girotu**: *aire girotua jarri dute*.  
**aireberritu**, aireberri, aireberritzen.  
     *da/du* ad.  
**aireberritze**  
**airebide**  
**aireko** *Ipar*. ‘hegazkina’  
**aireontzi**  
**aireplano** *Zah*. ‘hegazkina, airekoa’  
**aireportu**  
**aireratu**, airera, aireratzten. *da/du* ad.  
**aisa** h. **aise**  
**aise**  
**aita**  
     **aita ponteko**  
**aitabitxi**  
**aitaginarreba**  
**aitaita**  
**aitajaun** 1 ‘aitona’. 2 ‘aita pontekoa’  
**aitaorde**  
**aitaren**  
     **aitaren egin**  
     **aitaren batean**  
**aitarenka**  
**aitatu** 1, aita(tu), aitatzen. *da/du* ad. ‘aita egin’  
**aitatu** 2, aita, aitatzen. *du* ad. h. **aipatu**  
**aitatxi**  
**aitona**  
**aitor**  
     **aitor egin**

**aitor eman**  
**aitor-entzule**  
**aitor izan**. *du* ad.  
**aitoren alaba**  
**aitoren seme**  
**aitorle**  
**aitorleku**  
**aitormen**  
**aitorpen**  
**aitorrrarazi**, aitorraraz, aitorrarazten. *dio* ad.  
**aitortu**, aitor, aitortzen. 1 *du* ad. 2 *da* ad.  
     ‘(bekatuen) aitortza egin’  
**aitortza**  
**aitzakia**  
**aitziko** ‘aurkakoa’  
**aitzin**  
     **aitzina**  
     **aitzinean**  
     **aitzineko**  
     **aitzinetik**  
**aitzinalde**  
**aitzinarazi**, aitzinaraz, aitzinarazten. *du* ad.  
**aitzinatu**, aitzina(tu), aitzinatzen. *da/du* ad. ‘aurreratu’  
**aitzindari**  
**aitzindu**, aitzin(du), aitzintzen. *zaio* ad.  
     ‘aurea hartu’  
**aitzineko** iz. ‘arbasoa’; ‘aitzindaria’  
**aitzitik**  
**aitzur**  
 aitzurdin\* e. **haitzurdin**  
**aiurri**  
**aiuta**  
**aiutu** *Bizk*. izond.  
**aizkolari**  
**aizkora**  
 aizpa\* e. **ahizpa**  
**aizto**  
**aiztur** pl. *Sin*. guraize, artazi  
**akabantza**  
**akabatu**, akaba, akabatzen. *du* ad. ‘hil’  
**akabera**  
**akabo** interj.  
**akabu** *Bizk*. ‘amaiera’  
**akademia**  
**akadiera** (hizkuntza)  
**akain** *Ixodoidea*

**akara** *Valeriana celtica*. *Sin.* **nardo**  
**akastun**  
**akats**  
**akazia** *Acacia sp.*  
**akeita** g.g.er. 'kafea'  
**akelarre**  
**aker**  
**aketz**  
**akitaniera** (hizkuntza)  
**akitu**, aki, akitzen. *da/du* ad. 'asko ne-  
 katu'  
**akkratar** (herritarra)  
 akorazatu\* e. **korazatu**  
**akorde**  
**akordeoi** *Sin.* **eskusoinu**  
**akordio**  
**akort**  
     **akort izan.** *da* ad.  
**akrobata**  
**akrobazia**  
**akromatiko**  
**akta**  
**aktibo**  
**akto**  
**aktore**  
**akuarela** *Sin.* **urmargo**  
**akuario**  
**akueduktu**  
**akuilatu**, akuila, akuilatzen. *du* ad.  
**akuilu**  
**akupuntura**  
**akura**  
**akuratu**, akura(tu), akuratzen. *du* ad.  
**akuri** *Cavia porcellus*  
**akusatu**, akusa, akusatzen. *du* ad.  
**akusatzaile**  
**akusazio**  
**akustika** *Fis.*  
**akustiko** *Fis.*  
**akzio** *Ekon.*  
**al** 'galde partikula'  
**ala 1:** *txantxetan ari zara, ala?*  
**ala 2:** *ala Tutatis!, ala Zeus!* (Baina ik.  
*alafede!, alajainkoa!*)  
**ala 3** (gabarra mota)  
 ala 4\* e. **alha**  
**alaba**  
**alabaina** 1 'hala ere'. 2 'izan ere'  
**alabastro** 'harzuria'

**alafede**  
**alai**  
**alaitasun**  
**alaitu**, alai(tu), alaitzen. *da/du* ad.  
**alajaina**  
**alajainkoa**  
**alanbre** *Sin.* **burdin hari**  
**alargun**  
**alarma**  
**alatu**, ala(tu), alätzen. *Bizk. du* ad. 'su-  
 fritu'  
**albaindu**, albain, albaintzen. *du* ad.  
**albait:** *ukaldia albait zuzentzen dute be-  
 gira eta sudurrera; albait merkeen ipi-  
 ni dituzte salgai beren uztak; albait  
 lasterren etortzeko eskatu digu.*  
**albeitari**  
**albeitero** h. **albeitari**  
**albaniar** (herritarra)  
**albaniera** (hizkuntza)  
**albatros** *Fam. Diomedidae*  
**alberjinia** *Solanum melongena*  
**albiriste**  
**albistari**  
**albiste**  
**albo 1:** *atearen burua eta alboak.*  
**albo 2** *Platanus hybrida*. *Sin.* **platano 1**  
**alboratu**, albora(tu), alboratzen. *da/du*  
*ad.*  
**alborengo**  
**album**  
**aldaera**  
**aldagai**  
**aldagailu** *Ipar.* 1 'aldagarria'. 2 'aldake-  
 ta'  
**aldagela**  
**aldaka**  
**aldaketa**  
**aldaki** 'kopia'  
**aldakor**  
**aldakuntza**  
**aldamen**  
**aldamio**  
**aldapa**  
**aldaratu**, aldara, aldaratzen. *da/du* ad.  
 'urrundu': *aldara hadi ene bidetik;  
 maiz aldara zaitez zeure bihotzaren  
 bakartokira. Anton. alderatu*  
**aldarazi**, aldaraz, aldarazten. *du* ad.

**aldare****aldarrikatu**, aldarrika, aldarrikatzen. *du* ad.**aldats****aldatu**, alda, aldatzen. *da/du* ad.**aldatze****aldaxka** *Sin. kimu***alde 1** iz.: *alde handia dago batetik bestera.***alde 2:** *mendiaren alde honetan.***alde!****aldean beste****aldean eduki****aldean eraman****alde bat****alde batera****alde batera utzi****alde bat utzi****alde egin****alde guztiz****alde hemendik!****alderen alde** *Sin. alderik alde***aldetik****-en alde egin** '(norbaiten) alde atera, jokatu, mintzatu, etab.'**alde 3** 'taldea'**aldea atera****aldehydo** *Kim.***aldeko****alendu**, alden, aldentzen. *da/du* ad.**aldera:** *karitatea behar da guztien aldera; bere hartzekoaren aldera izan ditu ehun libera; adibide batzuk jarriko ditugu, lana errazte aldera.***alderako** izlag.**alderantziz****alderantzizko****alderatu**, aldera(tu), alderatzen. 1 *zaio* ad. 'hurbildu' *Anton.* **aldaratu**. 2 *du* ad. 'erkatu'**alderdi****aldez****aldez alde****aldez aurreko****aldez aurretik****aldez beste****aldez besteko****aldez edo moldez****aldeztu**, aldez(tu), aldezten. *du* ad.**aldi****aldian aldiko****aldian behin****aldiri:** *Bartzelonako aldirietan.***aldiriko tren****alditxartu**, alditxar(tu), alditxartzen. *da* ad.**aldiz** lok. 'berriz, ostera': *gutxi hiltzen ditu goseak; anitz, aldiz, aseak.***aldizka****aldizkako****aldizkari****aldrebes** 1 izond.: *ume aldrebesa, arrazoi aldrebesak.* 2 adlag.: *dena aldrebes, dena atzekoz aurrera.***aldundi****ale** *Sin. bihi, garau:* 1 'bihia, garaua': *arto-alea, gari-alea; ez da ikaslerik agertu, ezta alerik ere.* 2 'batekoa, unitatea': *liburu berriaren ale bana eskaini digu.* 3 (hitz-elkarketaren bigarren osagai gisa) 'handia, ezustekoa': *hura gizon-alea!***aleazio** *Heg.***alegera** *Ipar.* 'alaia'**alegia** 1 (partikula). 2 'ipuina'**aleluia****aleman** 1 (herritarra) *Sin. alemaniar.* 2 (hizkuntza)**alemaniar** (herritarra) *Sin. aleman***alergia****alfabetatu**, alfabetatzen. *da/du* ad.**alfabetatze****alfabeto****alfer****alferkeria****alferlan****alferrik****alferrik galdu****alferrikako****alfonbra** *Heg.* 'lurreko tapiza'**algara****algoritmo****alha:** *ordenagailua alhan dut.***alhapide****alharazi**, alharaz, alharazten. *du* ad.**alhatu**, alha(tu), alhatzen. 1 *da* ad. 'bazkatu, larratu': *behiak eta behorrek han*

- alhatzen dira. 2 du ad. 'alharazi': bazka gurietan alhatuko ditut neure ardiak.*
- aliketeta**
- alimale** izond.: *mutil alimale traste bat.*
- alimaleko**: *alimaleko liburua; bizar alimaleko batekin.*
- algebra**
- aljeriar** (herritarra)
- aljertar** (herritarra)
- alkalino** *Kim.*
- alkandora**
- alkar\* e. **elkar**
- alkate**
- alkateorde**
- alki\* e. **aulki**
- alkohol**
- alleluia\* e. **aleluia**
- almendra** *Heg.* 'arbendola'
- almendrondo** *Heg.* 'arbendolondoa'
- almirante**
- almute**
- aloe** *Aloe sp.*
- aloger**
- alokairu**
- alor**
- alpapa** *Medicago sativa. Sin. luzerna*
- alper** iz. 'nekazaritzako tresna'
- alpinismo**
- alpinista**
- alta** *Ipar.* lok. 'hala ere; beraz; izan ere'
- alternadore** *Teknol.*
- alterno**
- altu** 'garaia, gora'
- altuera** *Heg.* 'goratasuna, garaiera'
- alturako arrantza** *Heg.*
- altxagarri** 1 'legamia'. 2 'zerbait altxatzeko, jasotzeko gauza'
- altxarazi**, **altxaraz**, **altxarazten**. *du ad.*
- altxatu**, **altxa**, **altxatzen**. *da/du ad.*
- altxor**
- altzairu**
- altzari**
- altzari(-)denda**
- altzo**
- alu**
- aluminio**
- ama**
- Ama Birjina**
- ama(-)hizkuntza**
- ama ponteko**
- amabitxi**
- amaginarreba**
- amai**
- amaiarazi**, **amaiaraz**, **amaiarazten**. *du ad.*
- amaiera**
- amaigabe** izond.
- amaigabeko**
- amaitu**, **amai(tu)**, **amaitzen**. *da/du ad.*
- amama**
- amanda** *Ipar.* h. **isun**
- amandre**
- amankomun\* e. **komun**
- amaorde**
- amaraun**
- amarra** 1 'karramarroa'. 2 'lotura'
- amarru**
- amateur**
- amatxi**
- ameba**
- amen**
- amen batean**
- amen egin**
- amen esan**
- amerikano** 'Ameriketatik (aberasturik) itzuli den euskal herritarra'
- amerikar**
- amestu**, **amets/amestu**, **amesten**. *du ad.*
- ametrailadora\* e. **metrailadore**
- amets**
- amets egin**
- ametsetan**
- amets izan**: *askatasuna dute amets.*
- ametz** *Quercus sp.*
- amharera** (hizkuntza)
- amiamoko** *Ciconia sp. Sin. zikoina*
- amianto** *Sin. asbesto*
- amilarazi**, **amilaraz**, **amilarazten**. *du ad.*
- amildegi**
- amildu**, **amil**, **amiltzen**. *da/du ad.*
- amiral** 'almirantea'
- ammandar** (herritarra)
- amnesia**
- amnistia**
- amodio**
- amona**
- amona mantangorri** *Coccinelidae. Sin. katalingorri, marigorringo*
- amore eman**
- amorio\* e. **amodio**

**amorragarri**amorra<sup>i</sup>\* e. **amuarrain****amorrarazi**, amorraraz, amorrarazten.  
*du* ad.**amorratu**, amorra, amorratzen. *da/du* ad.**amorrazio** *Heg.***amorru****amortizatu**, amortiza, amortizatzen. *du*  
ad.**amortizazio****amsterdamdar** (herritarra)**amu****amuarrain****amultsu**amuts\* e. **kamuts****anagrama****anaia****anaiarte****anaidi****anaitasun****anakoreta****anakroniko****anakronismo****analisi****analitiko****analizatu**, analiza, analizatzen. *du* ad.**analogia****anarkia****anarkismo****anarkista****anatomia****anatomiko****anbulantzia****andana****andare** *Heg.* 'panpina'**andere** *Ipar.* 'andrea'**andereño****andorratar** (herritarra)**andrakila** *Sin.* **panpina****andrazko** *batez ere Bizk.***andre****andregai****andura** *Sambucus ebulus***anemia****anestesia****anfibia** *Sin.* **urlehortar****anfiteatro****anfotero** *Kim.***angelu****angeluar** *Mat.***angeluberdin** *Mat.***angeluzuzen** *Mat.***angina** *Med.***angolar** (herritarra)**angula** *Sin.* **txitxardin****angurri** *Citrullus lanatus***anhidrido** *Kim.***animalia****animatu**, anima, animatzen. *da/du* ad.**animismo****anitz** 1 jentztz. *jende anitz etorri da.*2 \**industria anitza e. askotariko in-*  
*dustria***anizkoitz****anizkun****aniztasun****ankarar** (herritarra)**anker****ankerkeria****anonimo****anpere****anperometro****anpulu****antananarivoar** (herritarra)**antartiko** izond.: *Ozeano Antartikoa.***antena****antibiotiko****antidoto****antifona** *Erl.***antigoaleko** *Heg. Lgart.***antiguar** (herritarra)**antilope** *Antilope sp.***antisemita****antiseptiko****antitesi****antolaketa****antolakunde** 'organizazioa'**antolakuntza****antolamendu****antolarazi**, antolaraz, antolarazten. *dio*  
ad.**antolatu**, antola, antolatzen. 1 *du* ad.2 *Ipar. da* ad. 'bat etorri'**antolatzaile****antonimo****antropofagia****antropofago** 'gizajalea'**antropologia**

- antsia** ‘ardura, kezka, arreta’  
**antsia izan**  
**antsiatu**, antsia(tu), antsiatzen. *da* ad.  
**antsika**  
**antxeta** *Larus sp.* eta *Rissa sp.*  
**antxume**  
**antz**  
**antza denez**  
**antzean**: *gaixo antzean dabil.*  
**antzeko**: *norbaiten antzekoa izan; ipuin antzekoak.*  
**antzera** ‘gisara’: *egin dezagun gizona geure antzera*  
**antz** ‘dirudienez’: *asmoren bat bururatu zitzaien, antza, eta zirt-zart bururatu eta egin.*  
**antzaldarazi**, antzaldaraz, antzaldarazten. *du* ad.  
**antzaldatu**, antzalda, antzaldatzen. *da/du* ad.  
**antzaldatze**  
**antzara** *Anser sp.*  
**antze** ‘trebetasuna’  
**antzekotasun**  
**antzeman**, antzematzen. *dio* ad. *antzeman diot ez dela hemengoa (ezezkoetan, ez diot antzik eman eta ez diot antzeman, biak onartzen ditu).*  
 antzera\* e. **antzara**  
**antzerki**  
**antzerki(-)lan**  
**antzetsu**  
**antzezle**  
**antzeztu**, antzez, antzezten. *du* ad.  
**antzina** ‘aspaldi’  
**antzinako**  
**antzinaro**  
**antzinatasun**: *euskararen antzinatasuna; lanpostuko antzinatasuna.*  
**antzinate**  
**antzo**: *gazteak antzo behar du bizi; basakatu zauritua (edo zaurituaren) antzo.*  
**antzoki** ‘teatroa (tokia)’  
**antzu**  
**antzutu**, antzu(tu), antzutzen. *da/du* ad.  
**aorta**  
**apailatu**, apaila, apailatzen. *du* ad.  
**apain**  
**apainarazi**, apainaraz, apainarazten. *du* ad.  
**apaindu**, apain(du), apaintzen. *da/du* ad.  
**apaindura**  
**apaingarri**  
**apaintzaile**  
**apaintze**  
**apaiz**  
**apaizgai**  
**apaizgaitegi**  
**apaiztu**, apaiz(tu), apaizten. *da/du* ad.  
**apal 1** izond.: *persona apala; boz apala.*  
**apal 2** iz.: *apal berriak jarri ditugu parretan.*  
**apalarazi**, apalaraz, apalarazten. *du* ad.  
**apaldu**, apal(du), apaltzen. *da/du* ad.  
**apalki**  
**apaltasun**  
**aparailu 1** ‘arrantza tresneria’. 2 ‘zamarrien tresneria’  
**aparatu**: *arnas aparatua.*  
**aparkaleku**  
**apart\*** e. **aparte**  
**aparta**: *trebetasun aparta du neska horrek.*  
**apartamentu**  
**apartatu**, aparta, apartatzen. *du* ad. *Lgart. 1 Gip. eta Bizk. ‘aukeratu’. 2 ‘bereizi’*  
**aparte h. bereiz, urruti**  
**aparteko**  
**apenas** ‘ez dirudi’: *apenas entzun zezakeen hitz hori Azkuek Lekunberrin.*  
**apendizitis**  
**apeta**  
**apez h. apaiz**  
**apezpiku**  
**apiar** (herritarra)  
**apika**  
**apiril**  
**aplikarazi**, aplikaraz, aplikarazten. *dio* ad.  
**aplikatu**, aplika, aplikatzen. *du* ad.  
**aplikazio**  
**apo** *Ipar.* eta *Naf.* ‘(lehorreko) zapoa’  
**apoarmatu** ‘dortoka’  
**aposizio** *Gram.*  
**apostasia**  
**apostata**

**apostolu**apostu\* e. **apustu****apostura** h. **apustu****apote****apotema****aprendiz** *batez ere Ipar.***aprobetxatu**, aprobetxa, aprobetxatzen.*Heg. du* ad. ‘baliatu’**apropos** 1 adlag. ‘berariaz’. 2 izond. ‘egokia’**apuko** ‘aitzakia, estakurua’**apuntatu**, apunta, apuntatzen. *Heg. du* ad.**apur****apurka****apurkeria****apurkor****apurtu**, apur(tu), apurtzen. *da/du* ad.**apustu**aquarium\* e. **akuario****ar** izond. eta iz. *arrak eta emeak.***arabar****arabera****araberako****arabiar** (herritarra)**arabiera** (hizkuntza)**arakatu**, araka, arakatzen. *du* ad.**aran** *Prunus domestica***arantza****ararteko****arasa****aratxe****aratxeburu** ‘zapaburua’**aratz****arau** 1 iz. 2 postpos. a) ‘ahala’: *sartu arau hiltzen zituen*; b) ‘-en arabera’: *leku arau sortzen dira landareak.***araudi****araupetu**, araupe, araupetzen. *du* ad.**arautegi****arautu**, arau(tu), arautzen. *du* ad.**arazle****arazo** iz.**araztasun****araztegi****araztu**, aratz/araztu, arazten. *da/du* ad.**arbaso****arbel****arbendol** *Prunus dulcis***arbendolondo****arbi** 1 *Brassica napus*. 2 ‘arraba’**arbitrario****arbola****arbolazaintza****arbuigarri****arbuirazi**, arbuiraz, arbuirazten. *dio* ad.**arbuiau**, arbuia, arbuiaitzen. *du* ad.**arbuio****ardagai****ardandegi****ardangela****ardantze** ‘mahastia’**ardatz****ardazketa****ardazle****ardi** 1 (abere xehea). 2 *Bizk.* ‘arkakusoa, kukusoa’**ardi(-)esne****ardi(-)gazta****ardi(-)larru****ardi(-)txakur****ardit****ardo****ardura** 1 iz. ‘axola, arreta’. 2 *Ipar.* adlag. ‘maiz’**ardura izan** ‘axola izan’**arduradun****arduragabe** izond.**arduraldi****ardurape****arduratsu****arduratu**, ardura(tu), arduratzen. *da/du* ad.**are** 1**are ...-ago****are gehiago****are ere****are gutxiago****are** 2 ‘laborantza tresna’**area** ‘neurria’**areago****areagotu**, areago(tu), areagotzen. *da/du* ad.**arean****arean bai** ‘zerbait’**arean ez** ‘deus ez’**arerio****arestian**



**areto:** *areto girotua*.

**areto(-)futbol**

aretze\* e. **aratxe**

**argal**

**argazki**

**argazkilari**

**argazkilaritza**

**argentinar** (herritarra)

**argi**

**argi(-)txinta** 'argi-izpia'

**argiarazi**, argiaraz, argiarazten. *du* ad.

**argibide**

**argiketari**

**argiontzi**

**argiro**

**argitaletxe**

**argitalpen**

**argitara eman**

**argitaraldi**

**argitararazi**, argitararaz, argitararazten.

*dio* ad.

**argitaratu**, argitara(tu), argitaratzen. *du* ad.

**argitaratzaile**

**argitasun**

**argiteria**

**argitsu**

**argitu**, argi(tu), argitzen. I ad. 1 *du* ad.

'argi egin': *eguzkiak argitzen du mundua*. 2 *da* eta *du* ad. 'eguna zabaldu'.

3 *da/du* ad. 'argiago bihurtu'. 4 *du* ad. 'ikusmena bihurtu'. II izond. '(pertsone) aditu, ikasia'

**argizagi** *Sin. astro*

**argizari**

**argudiatu**, argudia, argudiatzen. *du* ad.

**argudio**

**argumentu**

argurio\* e. **argudio**

arhe\* e. **are** 2

**ari izan**, ari, ariko. 1 *da* ad.: *labeari su ematen ari zirenak*. 2 eguraldiaz eta,

*du* ad.: *euria, haizea, elurra ari du*.

**ariketa**

**arima**

**arin**

**erre-arin**

**jan-arin(ean)**

**arinarazi**, arinaraz, arinarazten. *du* ad.

**arin-arin**

**arindu**, arin(du), arintzen. *da/du* ad.

**arineketa**n adlag.

**aringarri** iz. eta izond.

**arinka**

**arin-arinka**

**arinkeria**

**arinki**

**arintasun**

**aristokrata**

**aristokrazia**

**arismetika**

**arimetiko**

**aritu**, ari, aritzen, ari(tu)ko. *da* ad.

**arizale** *Zub.* 'aktorea (pastoraletan)'

**arka**

**arkabuz**

**arkaiko**

**arkaismo**

**arkakuso** *Sin. kukuso*

**arkanjelu**

**arkatz** *Sin. lapitz*

**arkeologia**

**arketipo**

**arkitekto**

**arkitektura**

arkitu\* e. **aurkitu**

**arku**

**arkume**

**arkupe**

**arlo**

**arlote**

**arma**

**arma(-)denda**

**armada:** *itsas armada, aire armada. Sin.*

**gudaroste**

**armadura**

**armagin**

**armagintza**

**armairu**

**armarri**

**armategi**

**armatu**, arma(tu), armatzen. *da/du* ad.

**armeniar** (herritarra)

**armeniera** (hizkuntza)

**armiarma**

**armiarma(-)sare**

**arnasa** (*arnas* forman erabiltzen da hitz-elkarketako lehen osagai denean: *arnas aparatua*). *Sin. hats*

**arnasa hartu**

**arnasbide**  
**arnasbotatze**  
**arnasestu**  
**arnasestuka**  
**arnegarazi**, arnegaraz, arnegarazten. *dio* ad.  
**arnegari**  
**arnegatu**, arnega, arnegatzen. *du* ad. 'uko egin': *fedea(z) arnegatu zuen*.  
**arnegu**  
**arno** *Ipar*. h. **ardo**  
**aro 1** 'garaia, sasoa'  
**aro 2** 'eguraldia'  
**arotz**  
**arotzeria** *Sin.* **zurgintza**  
**aroztegi**  
**arpoi**  
**arra**  
     **arra bete**  
**arraba**  
**arrabio** *Salamandra sp.*  
**arrabita** 'biolin mota'  
**arrabota**  
 arrabots\* e. **harrabots**  
**arrada 1** adlag. 'betea, baina ez gainezka': *ez daki lakaria arrada ala mukuru izango duen*.  
**arrada 2** iz. 'badia, portu naturala'  
**arragoa**  
**arrai** *Lap.* eta *BNaf.* 'alaia'  
**arraiki** *Lap.* eta *BNaf.*  
**arraildu**, arrail, arrailtzen. *da/du* ad.  
     **ogi arraila**  
**arraileria**  
**arrain**  
     **arrain(-)saltzaile**  
**arraindun**  
**arraingorri** *Fam. Triglidæ. Sin.* **perloi**  
**arraio**  
**arraitasun** *Lap.* eta *BNaf.*  
**arraitu**, arrai(tu), arraitzen. *Lap.* eta *BNaf.* *da/du* ad.  
**arrakala** *Bizk.*  
**arrakalatu**, arrakala(tu), arrakalatzen. *Bizk.* *da/du* ad.  
**arrakasta**  
**arrandegi**  
**arrandia**  
**arranditsu**

**arrangura**  
**arrangurarazi**, arranguraraz, arrangurazten. *du* ad.  
**arranguratu**, arrangura(tu), arrangurazten. *da* ad.  
**arrano** *Aquila sp.* etab.  
**arranpa** *Sin.* **karranpa**  
**arrantza 1** 'arrain harrapatzea'  
**arrantza 2** (astoarena)  
**arrantzale**  
**arrantzari** *Ipar.* eta *Naf. Sin.* **arrantzale**  
**arrantzu**  
**arrapaladan** adlag.  
**arrapo**  
**arrapostu** *Ipar.* iz. 'erantzuna, ihardespena'  
**arraro**  
**arras**  
**arraspa**  
**arrastada**  
**arrastaka**  
**arrastegi**  
**arrastelu**  
**arrasti** *Bizk.* 'arrastiria, ilunabarra'  
**arrastiri** *Ipar.*  
**arrasto**  
**arratoi** *Rattus sp.*  
**arrats**  
**arratsalde**  
**arraun**  
     **arraunean (ari, ibili,...)**  
**arraunketa**  
**arraunlari**  
**arautza**  
**arautzopil**  
**arraxin** *Ipar. Sin.* **erretxina**  
**arraz**  
**arrazional**  
**arrazionalismo**  
**arrazionalista**  
**arrazista**  
**arrazoi**: *arrazoia daukazu* h. *arrazoi(a) duzu*.  
     **arrazoizko**  
**arrazoibide**  
**arrazoiketa**  
**arrazoimen**  
**arrazoinamendu** *Ipar. Sin.* **arrazoibide**  
**arrazoitu**, arrazoi(tu), arrazoitzen. *du* ad.

**arre 1** izond. eta iz. (kolorea)  
**arre 2** interj. (agindu hitza)  
**arreb**a  
 arregaketa\* e. **ureztapen**  
**arren**  
     **arren egin**  
**arrenka**  
 arrenkura\* e. **arrangura**  
**arreta**  
     **arretaz**  
     **arretazko**  
**arretatsu**  
**arrimarazi**, arrimaraz, arrimarazten. *du*  
 ad.  
**arrimatu**, arrima, arrimatzen. *da/du* ad.  
**arrimu** 1 *Heg.* ‘laguntza’. 2 *Ipar. Zah.*  
 ‘ordena, moldaketa’  
**arriskatu**, arriska, arriskatzen. *du* ad.  
**arrisku**  
**arriskugarri**  
**arriskutsu**  
**arro**: *Deba ibaiaren arroa.*  
**arroa** (pisu neurria): *hamabi arroako*  
*txerria.*  
**arroila**  
**arroka**  
**arroltze** h. **arrautza**  
**arroltzopil** h. **arrautzopil**  
 arront\* e. **arrunt**  
**arropa**  
**arrosa**  
**arrosario**  
**arrosel** *Pagellus centrodonatus*  
**arrotz**  
**arroz** *Sin. irris*  
     **arroz(-)esne**  
**arroztegi** ‘etxegabeentzat eta izan ohi  
 den ostatu doakoa’  
**arroztu**, arrotz/arroztu, arrotzen. *da/du*  
 ad.  
 arrubi\* e. **arrabio**  
 arrubio\* e. **arrabio**  
**arrunkeria**  
**arrunki**  
**arrrunt**  
     **arrruntean** ‘eskuarki, gehienetan’  
**arta** ‘arreta, ardura’  
**artaburu**  
**artajorra**

**artalde**  
**artale**  
**artatu**, arta(tu), artatzen. *Ipar. du* ad.  
**artatxiki**  
**artatzaile**  
**artazi** pl. *Sin. aiztur, guraize*  
**artazuriketa**  
**artazuritze**  
**arte 1** postpos.: *bihar arte; zu isildu arte.*  
**arte 2** iz. ‘tartea, bitartea’: *etxetik lante-*  
*girako arte horretan gertatua.*  
**arte 3** iz. 1 ‘amarrua’. 2 ‘trebetasuna’.  
 3 ‘ertia’. 4 ‘animaliak harrapatzeko  
 tresna’  
**arte 4** *Quercus ilex*  
**artean** adlag.  
**artega** adlag.  
 artegai\* e. **artelan**  
**artegatasun**  
**artegatu**, artega(tu), artegatzen. *da/du*  
 ad.  
**artegi**  
**artegintza**  
**arteka**  
**arteko** iz.  
**artelan**  
**artelat** *Quercus suber*  
**artelazki** *Sin. kortxo*  
**arteria**  
**artetsu**  
**artez** izond.: *biderik artezena aukeratu;*  
*artez eta zuzen erabiltzeko.*  
**artezkari**  
**artezkaritza**  
**artezki** ‘trebeki’  
**arteztasun** ‘zuzentasuna’  
**arteztu**, artez(tu), artezten. *du* ad. ‘zu-  
 zendu’  
**artifizial**  
**artiko** izond.: *Ozeano Artikoa*  
**artikulazio**  
**artikulu**  
**artile**  
 artileria\* e. **artilleria**  
**artilleria**  
**artisau** *Sin. eskulangile* (*artisau* hitza  
 berriki asmatua da)  
**artisautza** *Sin. eskulan, eskulangintza*  
**artista**

- artistiko**  
**artizar**  
**artizki**  
**arto**  
    **arto(-)bizar**  
    **arto(-)buru**  
    **arto(-)jirin**  
    **arto(-)jorra**  
    **arto(-)landa**  
    **arto(-)zuritze**  
**artritis**  
**artropodo**  
**artxibarazi**, artxibaraz, artxibarazten.  
    *dio* ad.  
 artxibari\* e. **artxibozain**  
**artxibatu**, artxiba, artxibatzen. *du* ad.  
**artxibo**  
**artxibozain**  
**artxiduke**  
**artxipelago** ‘uhartedia’  
**artzain**  
**artzaingo**  
**artzaintza**  
**artzapezpiku**  
**asaba**  
**asaldarazi**, asaldaraz, asaldarazten. *du* ad.  
**asaldatu**, asalda, asaldatzen. *da/du* ad.  
**asaldu**  
**asaldura** *Ipar.* ‘asaldua’  
**asaskaldi** *Bizk.*  
**asaskatu**, asaska, asaskatzen. *Bizk. da/du*  
    ad.  
**asbesto** *Sin.* **amianto**  
**ase**, asetzen. *da/du* ad.  
**asearazi**, asearaz, asearazten. *du* ad.  
**asebete**, asebetetzen. *da/du* ad.  
**aseezin**  
**asegarri** izond. eta iz.  
**aseguratu**, aseguira, aseguratzen. *du* ad.  
**aseguru**  
**asepsia**  
**asetasun**  
**asfalto**  
**ashgatar** (herritarra)  
**asiar**  
 asignatura\* e. **ikasgai**, **irakasgai**  
**asimilazio**  
**aska**  
**askarazi**, askaraz, askarazten. *du* ad.  
**askari**  
**askatasun**  
